

## MUSKULU PIRAMIDALA BLOKEATZEKO BAIMEN INFORMATUA CONSENTIMIENTO INFORMADO PARA BLOQUEO MUSCULO PIRAMIDAL

### A. IDENTIFIKAZIOA:

MEDIKU ARDURADUNAREN IZENA:  
..... Data: .....

### B. INFORMAZIOA:

Anestesia lokala eta/edo kortikoidea muskulu piramidalaren barruan injektatzean datza; izan ere, muskulu horrek ipurmasaileko min hedatua eragiten du zenbaitetan.

Teknika gauzatzeko, orratz bat jartzen da ipurmasailaren aldean. Batzuetan, ekografo bat eta erradioskopiako gailu bat erabiltzen dira, eta halakoetan, kontraste iododun pixka bat ematen da orratzaren kokapena egiaztatzeko. Gailu horiek guztiak blokeoa egiteko gida dira, eta haiei esker, teknika zehatzagoa eta fidagarriagoa da.

Teknika hau mina ongi kontrolatzeko egokitzat jotzen den behar beste aldiz egin daiteke.

Teknika hau eraginkorra izan bada, toxina botulinikoa eman ez egin daiteke.

Tratamendu honen helburua mina arintzea da, beste tratamendu batzuei erantzun ez badie.

### C. ARRISKUAK ETA KONPLIKAZIOAK:

- Infekzioa, hematoma, odol-ateratze lokala eta mina sor daitezke ziztada-eremuan; eskuarki, iragankorrak dira eta iraupen txikikoak.
- Orobat, zorabioa eta hipotentsioa gerta daitezke prozeduran.
- Lehen egunetan, ezohikoa bada ere, baliteke analgesia edo anestesia behar izatea izterrean eta oinean. Bestalde, badago beheko gorputz-adarrek huts egiteko arriskua, eta erorialdia gerta daiteke.

### Beste konplikazio batzuk, oso gutxitan gertatzen direnak:

- Anestesiko lokalak eta kortikoideak eragindako erreakzio alergikoa.
- Anestesiko lokala odol-hodi batean injektatzen bada ezustean, toxikotasun akutua gerta daiteke; halakoetan, baliteke konortea galtzea, konbultsioak izatea edo koma gertatzea, eta bizkortze-neurriak beharko lirarteke, adibidez, intubazioa eta aireztapen mekanikoa zenbait orduz.
- Injekzioa nerbioen barruan, nerbio-zuntzen barruan ziztatzeagatik; nerbioetan lesioa eragin daiteke.
- Ziztada egitea peritoneoan; errai hutsa zultzeko arriskua dago (hestea). Orratza muskulua baino sakonagoa den plano batean sartuz gero, pelbisera hel daiteke, eta horrenbestez, kolona, ondestea edo uzkia zultzeko arriskua dago. Oso ezohikoa da interbentzio kirurgikoa egin behar izatea.
- Lesioa nerbio pudendoan eta bere hodieta, baita alterazioak ere esfinterren kontrolean, edota odol-ateratze lokala, hurrenez hurren.

OSPITALEAK BEHAR DIREN BITARTEKOAK IZANGO DITU PREST, GERTA DAITEZKEEN KONPLIKAZIOAK TRATATZEKO.

### A. IDENTIFICACIÓN:

NOMBRE DEL MEDICO RESPONSABLE:  
..... Fecha: .....

### B. INFORMACIÓN:

Consiste en inyectar anestesia local y/o corticoide dentro del músculo piramidal que es responsable en ocasiones de dolor glúteo irradiado.

La técnica se realiza colocando una aguja en la zona glútea. En ocasiones suele utilizarse un ecógrafo, un neuroestimulador y un aparato de radioscopia, y en éste último casos, pequeñas cantidades de contraste yodado. Todos ellos nos sirven como guía para realizar el bloqueo, haciendo la técnica más precisa y fiable.

Esta técnica puede repetirse las veces que se estime oportuno para un control óptimo del dolor.

Cuando esta técnica ha sido efectiva puede realizarse mediante la administración de toxina botulínica.

Con este tratamiento se pretende la mejoría de su dolor, ante la falta de respuesta de otros tratamientos intentados.

### C. RIESGOS Y COMPLICACIONES:

- Se pueden producir infección hematoma y sangrado local y dolor en la zona de punción que suelen ser pasajeros y de corta duración.
- También puede presentar mareo e hipotensión durante el procedimiento.
- Durante los primeros días, aunque poco frecuente, es posible referir analgesia, anestesia a nivel de pantorrilla y pie y riesgo de fallo de EI con posibilidad de caída.

### Otras complicaciones muy poco frecuentes:

- La reacción alérgica al anestésico local y corticoide.
- Si el anestésico local es inyectado accidentalmente en un vaso sanguíneo, se puede producir toxicidad aguda, que se manifiesta por pérdida de conciencia, convulsiones y coma, que requerirían medidas de reanimación, como intubación y ventilación mecánica durante unas horas.
- Inyección intraneural con posibilidad de lesión nerviosa, por punción dentro de las fibras nerviosas.
- Punción de peritoneo con riesgo de perforación de víscera hueca (intestino). Si la aguja se introduce en un plano más profundo al musculo puede alcanzar la pelvis con riesgo de punción y/o perforación de colon, recto o ano. Excepcionalmente puede requerir intervención quirúrgica.
- Lesión del Nervio pudendo y sus vasos, con alteración en el control de esfínteres, o sangrado local, respectivamente.

EL HOSPITAL PONDRÁ A SU DISPOSICIÓN LOS MEDIOS NECESARIOS PARA TRATAR ESTAS POSIBLES COMPLICACIONES.

**D.- ARRISKU PERTSONALAK:**

Egoera pertsonal jakin batzuek eta gaixotasunek arriskuaren edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna areagotu dezakete. Medikuek eman dizu zure kasuan dauden arrisku zehatzen berri. Hala ere, esan behar diguzu, batez ere:

- Diabetikoa bazara: infiltrazioaren ondoren, baliteke odoleko azukre-mailaren zifrak aldatzea.
- Kontraste iododunek eta/edo anestesiko lokalek eta/edo kortikoideek eragindako alergia baduzu.
- Haurdun zaudelako susmoa baduzu.
- Antikoagulatzaileak edo antiagregatzaileak hartzen badituzu (SIMTROM, XARELTO, ELIQUIS, PRADAXA, azenokumarola, erribaroxaban, dabigatrana, apixabana / CLOPIDOGREL, PLAVIX, PLETAL, zilostazola).

**E.- BLOKEOA EZ DIREN BESTE AUKERAK:**

- Ahozko eta/edo muskulu barneko terapia farmakologikoa.
- Zure kasuan, terapia horien eraginkortasuna txikiagoa dela uste dugu.

**DOKUMENTU HAU SINATZEN DUT ONGI IRAKURRI OSTEAN ETA NIRE ZALANTZAK GALDETU ETA ARGITZEKO AUKERA IZAN OSTEAN. BERAZ, ZER EGIN BEHAR DIDATEN ULERTU ONDOREN, ITXARON DAITEZKEEN EMAITZEN ETA HORTIK ERAGIN DAITEZKEEN ARRISKUEN BERRI IZAN ONDOREN**

**D.- RIESGOS PERSONALIZADOS.**

Algunas circunstancias personales específicas y enfermedades pueden aumentar la frecuencia o gravedad de riesgos o complicaciones. Su médico le ha informado acerca de los riesgos específicos en su caso. Aun así, es necesario que nos advierta sobre todo si:

- Si es diabético: por posible alteración de las cifras de azúcar en sangre tras infiltración.
- Si es alérgico a contrastes iodados y/o anestésicos locales y/o corticoides.
- Sospecha de embarazo.
- Si usted toma anticoagulantes o antiagregantes (SIMTROM, XARELTO, ELIQUIS, PRADAXA, acenocumarol, rivaroxaban, dabigatrán, Apixaban / CLOPIDOGREL, PLAVIX, EKISTOL, PLETAL, cilostazol).

**E.- ALTERNATIVAS AL BLOQUEO:**

- Terapia farmacológica oral y/o intramuscular.
- Consideramos que estas terapias son de efectividad menor en su caso.

**FIRMO ESTE DOCUMENTO DESPUÉS DE HABERLO LEÍDO Y HABER TENIDO LA OPORTUNIDAD DE PREGUNTAR Y ACLARAR MIS DUDAS. POR TANTO, DESPUÉS DE HABER ENTENDIDO LO QUE SE ME VA A HACER, LOS RESULTADOS ESPERADOS Y LOS RIESGOS QUE DE TODO ELLO PUEDAN DERIVARSE.**

**Pazientea/ El Paciente****Pazientearen izen-abizenak**

Nombre, dos apellidos

**Sinadura eta data**

Firma y fecha .....

**Medikua/El/La Médico****Medikuaren izen-abizenak eta elkargokide-zk.**

Nombre, dos apellidos y nº de colegiado del/de la médico/a

**Sinadura eta data**

Firma y fecha .....

**Ordezkarria: adingabekorik edo pazientearen ezgaitasunik egotekotan / Representante: en caso de incapacidad del paciente o menor de edad****Legezko ordezkariaren izen-abizenak, NAN eta ahaidetasuna**

Nombre, dos apellidos, DNI y parentesco del representante legal

**Sinadura eta data**

Firma y fecha .....



**Pazientearen edo legezko ordezkariaren ATZERA EGITEA / DESISTIMIENTO del paciente o representante legal**

**Adierazitako prozedurapean EZ JARTZEAREN irismena eta arriskuak ulertzen ditut. Eta halako baldintzetan atzera egiteko eskubidea egikaritzen dut.**

Comprendo el alcance y los riesgos de NO SOMETERME al procedimiento indicado. Y en tales condiciones ejerzo mi derecho de desistimiento

**Sinadura eta data**

Firma y fecha